Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2021eko ekainaren 21eko 18:00etan, Erroibarko Udala Bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil Garcia, Teresa Bidaurreta Azkarate, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Enrique Garralda Erro izan zen eta idazkaria udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendako lehenengo gaiari ekin baino lehen Haize Morea taldeko Remiro zinegotziak EH-Bildu taldeko Nuño zinegotziak eta ETI taldeko Gil zinegotziak bilkura grabatuko dutela adierazi dute.

Saioa hasi aurretik, Udalbatzak minutu bateko isilunea egin du Erroibarko udaletxeko balkoian Tenerifen hildako neskatoen omenez, eta aste osoan indarkeria matxistaren aurkako pankarta balkoian uztea erabaki da.

1.- 2021eko MARTXOAREN 29ko, APIRILAREN 14ko ETA MAIATZAREN 19ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza eta adierazi du aktan jaso nahi duela bilkura-deialdiari dagokionez ez dela bete osoko bilkura egin baino bi egun baliodun lehenago legeak ezartzen duen epea. Garralda alkateak bilkura bertan behera uztea proposatu du, baina zinegotziak erantzun du berak ez duela bilkura bertan behera uztea eskatuko, ohiko bilkura gutxi egiten direlako bertan behera uzteko, eta, gainera, gai garrantzitsuak daude, hala nola zinegotzi berriaren kargu-hartzea eta beste gai batzuk, baina aktan jasota geratzea nahi du deialdia ez dela egin legeak adierazten duenaren arabera.

Denak ados daude osoko bilkura egitearekin, baina Nuño zinegotzi andreak uste du deialdiak egitean estu ibiltzen dela denbora aldetik.

Garralda alkate jaunak martxoaren 29ko bilkuraren akta onartzea proposatu du. Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta esan du, apirilean bilkura egin zela eta zuzena akta bilkura horretan onartzea izango zela, eta ez dela prozedura egokia, Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak esan dionenez, ezohiko bilkuren aktak hurrengo bilkura hurbilenean onartu behar baitira; idazkariak erantzun du bere iritziz onartzeko aurkez daitekeela; zinegotziak adierazi du berak ez zuela bilkura hura grabatu eta hori zuzendu behar dela eta berak ez duela akta onartuko. Hortaz, aldeko sei botoz eta aurkako boto batez (Remiro zinegotzia) erabaki da 2021eko martxoaren 29ko bilkuraren akta onartzea.

2021eko apirilaren 14ko bilkuraren aktari dagokionez, alkateak proposatu du, berak behintzat ez baitu denborarik izan osorik irakurtzeko, hurrengo bilkurarako uztea, eta, beraz, hurrengo bilkurarako onesteke geratzea.

2021eko maiatzaren 19ko bilkurari dagokionez, Remiro zinegotzi andreak adierazi du ez duela onartuko, berak esandakoa ez baita osorik idatzia agertzen. Aldeko sei

botorekin eta kontrako batekin (Remiro zinegotzia), 2021eko maiatzaren 19ko bilkurako akta onartzea erabaki da.

2.- 2021eko APIRILAREN 10etik EKAINAREN 18a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jk., 2021eko apirilaren 10etik 2021eko ekainaren 18a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Nekane zinegotziak ebazpen hauei buruzko informazioa eskatu du:

111/2021 Ebazpena, taxien lizentziaren transmisioari buruzkoa, Udalak zerbait esateko duen ala ez galdetu du. Idazkariak erantzun dio legeak transmisio hori egitea baimentzen duela ezarritako baldintzetan Udalak baimena emanaz gero; erroldatua egon behar da, ibilgailuak baldintza batzuk bete behar ditu, zerga-betebeharrak egunean izan behar ditu eta partikularren artean taxi lizentzia eskualdatzeko zenbatekoa jakinarazi behar du, eta hori horrela izan behar da legeak hala ezartzen duelako. Nolanahi ere, kostu handikoa izatea edo ez, hau da, diru-kopuru baten truke transferitzea, partikularren arteko arazoa da, eta Nafarroako Gobernuari jakinarazi behar zaio. Nuño zinegotzi andreak eskaera gehiago egon diren galdetu du eta idazkariak erantzun du Udalak ez duela plaza ateratzen, plaza printzipioz esleituta dagoela eta esleipendunak eskubidea duela esleipen hori eskualdatzeko eta nahi duenarekin akordio batera iristeko. Udalak egiten duena dela esleipen hori baimendu ala ez, ebazpenaren bidez egin duen bezala, eta, gainera, argitu du Udalak ez duela ezer kobratzen eskualdatze horrengatik.

Remiro zinegotziak ebazpen hauei buruzko informazioa eskatu du:

77/2021 zenbakidun ebazpena, Sorogaingo aterpetxeko gastuen likidazioari buruzkoa, alkateari galdetu dio zergatik atera zen ebazpena apirilean aterpetxea urrian edo azaroan utzi zenean, zergatik izan den hain berandu. Idazkariak erantzun du likidazioa dokumentazio guztia ekarri diotenean eta egin ahal izan duenean prestatu duela.

89/2021 zenbakiko Ebazpena, elurra kentzeko likidatzeko zerbitzuei buruzkoa eta bi denboraldiena (19/20 eta 20/21), eta arrazoia zein den eta urtero egiten ez den galdetu du. Idazkariak erantzun du lehen likidazioa zerbitzuaren esleipendunek oso berandu aurkeztu zutela eta, gainera, oso kopuru txikia zenez, bi denboraldiak ebazpen berean egitea erabaki zuen.

91., 92. eta 93. ebazpenak, Ibararteri buruzkoak. 93. ebazpeneko koadroan, guztizkoen errenkada ez dago ongi, zenbatekoa ongi kalkulatuta dago, baina guztizkoen errenkadak ez daude ongi, zuzendu egingo da.

95 zenbakiko Ebazpena, Ardaitzen tresnak biltzeko nabea eraikitzeari buruzkoa; kontrakoa da, eta zertan den jakin nahi du. Idazkariak erantzun du eskatzaileak erantzun bat aurkeztu duela eta arkitektoari helarazi zaiola, ebatz dezan.

Laurentxiri buruzko 106. ebazpena, Sorogainen lokal bat erabiltzeko erantzunari dagokiona. Aretoa martxan dagoen jakin nahi du. Idazkariak erantzun du errentariei abisua eman zitzaizela erabiltzeko moduan izan zezaten, eta alkateak jakinarazi du aguazilarekin ere hitz egin duela, haren egoera egiaztatzeko.

3.-ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA ETA ZENBAIT KARGU HAREN ESKU UZTEA

Garralda alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, M^a Teresa Bidaurreta Azkarate zinegotziaren kredentziala jasota, bidezkoa dela karguaz jabetzea, eta, HAOLoren 108.8 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formularekin bat etorritik, karguaren betebeharrak leialtasunez beteko dituela zin egitea/hitzematea, eta, hala, karguaren betebeharra Erregearen aurrean leialtasunez beteko duela zin egitea, eta Ekisoainek legeak hala behartuta zin egin du eta kargua hartu du.

Jarraian, Garralda alkateak hartu du hitza, eta Udalbatzari jakinarazi dio Ekisoain zinegotziari proposatuko diola Martinez zinegotziak zituen ordezkari-tza-kargu guztiak bere gain hartzea: Urrobi Partzuergoko Batzar Orokorreko ordezkaria, Kintoko Mankomunitateko ordezkaria, Auñamendi Mankomunitateko Batzarreko ordezkaria, Bidausi Mankomunitateko Batzarreko ordezkaria, Cedernako ordezkaria, Animsako ordezkaria, Pirinioko Mahaiko ordezkaria, Erro-Roncesvalles parke mikologikoko ordezkaria, zuntz optikoan ordezkaria, eta gainera proposatu dio desfibrilagailuen espedientea koordinatu eta antolatzeaz arduratzea. Ekisoain andreak kargu horiek guztiak onartu ditu.

4.- 2021eko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA ETA HURA GAUZATZEKO OINARRIAK

Garralda alkateak hartu du hitza, eta 2021eko ekitaldiko aurrekontuen espedienteari dagokionez (hori ere batzordean aztertu da), alde batetik, jakinarazi du diru-sarreretan kopuru batzuk gehitu direla Erro eta Aurizberriko eskolak mantentzeko, Hezkuntza Departamentuak onartutako laguntza batzuetatik datozenak. Horrez gain, Pirinioetako planeko laguntzak ere jaso dira, aurkeztuko diren proiektuei dagokienez, bai eta Nafarroako Berdintasunerako Erakundeak egindako gastuek sortutako laguntzak ere (Berdintasunerako Erakunde Korporatibotik jasotako gastuak). Gainera, parke mikologikoko gastuen partida handitu egin da, eta, horrela, aurrekontua koadratu egin da.

Remiro zinegotziak hitza hartu du eta bere botoa azaltzen duen testua aktan agertzea nahi duela esan du. Hona hemen:

“Alkateak esan duen bezala, gaur udalbatza honi aurkezten zaizkion aurrekontuak kontinuitate dira.

Izan ere, kontinuitate dira alderdi batean baino gehiagotan. Lan-epeetan, adibidez. Beste urte batez, luzatutako aurrekontuekin ari gara lanean. Ekainean gaude, dagoeneko % 50ean gauzaturuta dagoen ekitaldi bateko aurrekontuak onartzen.

Gure ustez, hau aldatu egin behar da.

Haize Moreak uste du gurea bezalako bailara batek aurrekontu duinak merezi dituela, bai denbora zein forma aldetik. Gure ustez, aurrekontuak funtsezko tresna politikoa dira. Aurrekontuak, gure ikuspuntutik, udal-politikaren ibilbide-orria izan behar dira. Tokiko gobernantza-proiektu baten helburuak, zuzendaritza eta lehentasunak jasotzen dira bertan..

Ez dugu ulertzen ETI taldeak urtez urte errepikatzen duen modus operandi-a. Ez dugu ulertzen eta ez gatoz bat, eta horregatik lan egingo dugu 2022. urteko aurrekontuetan gure Udalak lan egin dezan 2021. urtea amaitu baino lehen..

Bestalde, bigarren urtez jarraian COVID 19ari buruzko partidak ere mantenduko direla azpimarratu du.

Hain zuzen ere, iaz bezala, alkateak bere aurrekontuetan Covid laguntzetarako partida bat aurkeztu digu, eta horretarako, iaz bezala, aurten ez dago aurreikusita ekintza-planik. Batzordearen egunean jakinarazi ziguten bezala, partida hori hor dago, badaezpada ere. Badaezpada.

Lehen esan dudan bezala, ekainean gaude, % 50ean gauzaturuta dagoen ekitaldi bateko aurrekontuak onartzen, eta 5.000 euroko covid laguntzen aurrekontu-partida bat aurkezten da, oraindik ekintza-plan zehatzik ez duena. Eta noiz pentsatu eta eskainiko zaie covid laguntza-plan hori herritarrei? Abenduan, iaz bezala? Berritri, hain berandu? Eta..... aurrekontu-partidaren zenbatekoa iazkoa baino txikiagoa?

Hori bada Eti taldearen ideia, ideia txarra iruditzen zaigu..

Egin beharreko inbertsioei dagokienez (6. kapitulua), alkateak esan digu Ibarreko jarduera ekonomikoa eta soziala hobetzeko eta biziberritzeko jarduera ugari eta garrantzitsuak izango direla.

Agian bai... baina jarduera ekonomikoaren sektore batekoa bakarrik... lehen sektorekoa. Gure ibarrean duen garrantziari inolako merezimendurik kendu gabe, uste dugu ez dela udalaren arreta eta inbertsioa merezi duen sektore ekonomikoa bakarra.

Horretan ere kontinuitate dira aurrekontuak, bai baitakigu benetako inbertsio-apusturik ez dagoela ekonomiaren beste sektore batzuetan, hala nola turismoan.

Gure taldeak Udalaren webgunea berritzeko aurrekontu-partida espezifikoa bat sartzea eskatu zuen, gaur egun baloratzen dugun dokumentuan agertzen ez dena, nahiz eta ikusi dugun ANIMSAren kuotaren partidaren zenbatekoa 2000 €igo dela (ez dakit

zenbateko hori den webgunea berritzeko eta bailararen jarduera turistikoa bultzatzeko egin beharreko inbertsioetatik interpreta daitekeen).

Ilido horretan, nabarmendu nahi dugu aurrekontuei egindako beste eskaera bat kontuan hartu dela, herritarren parte-hartzerako partida bat barne. Aurten 2000 €-koa. Partida honen inguruan lan ona egitea espero dugu, beste urte batzuetan mantendu ahal izateko eta, horrela, aurrekontu parte-hartzaileagoetan aurrera egitea lortzeko. Aurrekontu horietan, herritarrek beren ordezkarien bitartez adierazteaz gain, proiektu zehatzak dituzten herritarren proposamenekin ere adierazi ahal izango dute.

Aurten ere handitu egin da genero-berdintasuneko jarduketaren partidaren zenbatekoa, ohiko 1000 €-tik 3500 €-ra, ez udal-kutxetatik arlo horretan diru gehiago inbertituko delako, baizik eta, gure udal-taldeak eskatuta, berdintasunaren aldeko jarduketaren udal-proiektu bat lehen aldiz aurkeztuko delako INAIko diru-laguntzen deialdira.

Ilido horretatik, lanean jarraitu beharko dugu, gure Erroibarko aurrekontuek kontinuitate izateari utz diezaioten eta egiteko modu berriak, ideia berriak eta lehentasun berriak txerta ditzaten, eta legeek toki-erakundeei adierazten dietena betetzen joan daitezen, hala nola Berdintasunerako Legeak dioena (17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).

Haize Moreak, bere hauteskunde-programan, Lege hau betetzeko lan egiteko konpromisoa hartu zuen, 23. artikuluko 4. puntuan adierazten den bezala: « Toki-erakundeek genero-ikuspegia txertatuko dute beren aurrekontu-politikan, eta bertan genero-eraginaren azterketa sustatuko dute ».

Gure taldetik, gobernu-taldeari eskatzen diogu 2021eko aurrekontu horien genero-eraginaren azterketa egiteko, 2022ko aurrekontuetan lan egiterakoan kontuan hartu ahal izateko.

Alde batetik, esan dezakegu Erroibarko Udalaren 2021eko aurrekontuak oso urrun daudela berdintasun-politiketarako gomendatutako % 1etik.

Bestalde, eta xehetasunetan sartu gabe, esan dezakegu lehen sektoreko inbertsio handiak (turismo-sektoreko inbertsioetatik oso urrun dagoena) agerian uzten duela aurrekontuen genero-ikuspegiak eza: lehen sektorea oso maskulinizatua da, eta turismo-sektorea, berriz, feminizatuagoa. Hori dela eta, diru-kutxa publikoek sektore batean eta bestean egiten dituzten inbertsioen ondorioz, gure bailarako gizon eta emakumeen aukeretan eragin eta ondorio desberdinak izaten dira.

Azaldutako guztiagatik, ez dugu aurrekontu hauen alde bozkatuko.

Eta lanean jarraituko dugu gure herritarrek merezi dituztela uste dugun udal aurrekontuak lortzeko.”

Garralda alkateak hartu du hitza, eta uste du aurkeztutako aurrekontuak kontinuitate direla, horrela uste baitu udala kudeatu behar dela. Bere ustez, lehen sektorea ez da

genero-gaia, nahiz eta ibarrean lehentasuna duena izan, baina, nolahi ere, ibarrean dauden gainerako sektoreak ahaztu gabe, hala nola turismoa, eta azpiegiturak hobetzeko obrak egiten direnean, herritar guztien onerako izaten da. Herriak hobetzeko lanean ari dira, eta ildo horretan jarraitu behar dela uste du. Web orriari dagokionez, handitu egin da web orri osoago bat sortzeko partida, eta, bere ustez, kirolaren, kulturaren, jaiotza-tasaren, hezkuntzaren eta hirigintzaren aldeko apustu sendoa egiten duen udala da, laguntzak aurrekontuan sartuz, alderdi sozialetan ahalegin handia eginez, udal askok egin ezin dutena, alegia.

Eciolza zinegotzi jaunak hartu du hitza eta esan du bere ustez, batzordea izan zen egunean Remiro zinegotzi andreak hori guztia azaldu ahal izan zuela, eta arraroa egiten zaio gaia lantzeko egindako batzordean hori ez aipatzea eta osoko bilkuran egitea. Remiro zinegotziak erantzun du batzordean ETI taldeak aurrekontua azaldu zuela, berak aurrekontuetan sartzea onartu ziren ekarpen batzuk egin zituela, baina hori bateragarria dela aurrekontua onartzeko orduan egutegia eta lan egiteko modua ez partekatzearekin. Hurrengo aurrekontuak noiz prestatuko diren erabakitzea gobernu-taldearen ardura da, baina nahiago lukete beste modu batera landuko balira, genero-eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta, urte naturalarekin bat datorren egutegiari jarraituz, eta, urtearen amaieran, zer ibilbide jarraitu behar den jakinez. Baina alkatetzaren ohiko modus operandi-a ez da hori. Bere ustez onak diren ideiak eman ditzake, baina horrek ez du esan nahi aurrekontuei kritika egin ezin dienik.

Nuño zinegotzi andreak hartu du hitza, eta gaineratu du batzordean landutakoa azaltzen dela, proposamenak egiten direla, baina bakoitzak bere taldearekin komentatu behar duela eta erabakiak hartu behar dituela. Gaur, gehitu diren berrikuntza guztiekin, erabakia hartu dugu. Taldeak, zehazki, iaz bezala, onartu egingo ditu, ez dira gehien gustatzen zaizkienak, eta, gainera, horietan gehiago parte hartu nahiko lukete, baina planteatutako proposamenak sartzeko prest daudela ikusita, onartu egingo ditu, eta Ekisoain zinegotzi andreak ere jarrera bera izango du.

Garralda alkateak hartu du hitza. Aurrekontua egiteko eta onartzeko denborei dagokienez, aurten normalean baino denbora gehiago behar izan dela onartu badu ere, aldi berean, kontuen espedientea ere onartu ohi da, errealagoak direlako; izan ere, ez dira ezagutzen izango diren laguntza gehienak, eta, beraz, etengabe egin beharko lirake aldaketak, eta hori da bere iritzia 20 urte baino gehiagoko esperientziaren ondoren. Remiro zinegotziak erantzun du beti aldaketak egin daitezkeela. Eta gaineratu du ez duela zalantzan jartzen alkatearen iritzi hori, izan ere urte asko daramatza horrela lan egiten, baina bere taldea ez dago lan egiteko modu horrekin ados. Eta gaineratu du ez dela aurtengo egoera zehatza; izan ere, 2015etik aurrerako aurrekontuak onartzeko datak aztertu ondoren, egiaztatu da urtero aurrekontua urtea aurreratuta dagoenean onartu izan direla.

Horiek horrela, Udalbatzak erabaki du aho batez 2021eko urtealdiko aurrekontuaren txostena hasiera batean onartzea, 1.191.489,79 eurotan, haren izapideari jarraitzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5.- 2020ko ABELTZAINZA AZPIEGITUREN LANAK ADJUDIKAZIOA BERRESTEA

Jarraian, kontratazio-mahaien proposamena ikusita, txosten teknikoa ikusita, eta ikusita eskaintza bat datorrela baldintza-agirian eskatzen diren betekizun eta irizpideekin, 2018ko EFPL kontuan hartuta, aho batez erabaki da Basarteak idatzitako proiektuan jasotako abeltzaintza-azpiegituren 2020ko lanen esleipena onartzea, alde batetik, Lakitari pistak hobetzeko obrak, 58.452,40 €-tan, eta, bestetik, itxiturak, sasi-garbiketak eta birlandaketak Mikel Lorea Loperenari 57.941,00 €-tan).

6.- 2020-2021 BASO JARDUEREN ADJUDIKAZIOA BERRESTEA

Ondoren, kontratazio-mahaiak proposatuta, aho batez erabaki da Basarteak idatzitako proiektuan jasotako baso-jarduketan obren esleipena onartzea, bai 4. neurria (zolaketak, arekak, harri-lubeta) Lakitari esleitzea (58.452,40 €gehi BEZa), bai 8. neurria (baso-berritzea, sastrakak kentzea, soiltzea, ixtea, etab.) Iker lorea Loperenari esleitzea (57.941,00 €gehi BEZa).

7.- ANTXON ITURRIK AURIZBERRIKO UE15 1 ETA 2 LURZATIAN SUSTATUTAKO BORONDATEZKO BIRZATITZEA BEHIN BETIKO ONARTZEA

Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2021eko maiatzaren 13ko 111 zk. duen hartan, Antxon Iturri Gazteluk Aurizberriko UE 15. 1. eta 2. egikaritze-unitateetan sustatutako birzatatze proiektuaren hasierako onespina argitaratu zen. Proposamen horren emaitza hiru lurzati eraikigarri dira, 1.983,46 m²-ko azalera eta 201,34 m²-ko bide- eta oinezko-lurzorurako lagapen-azalera dutenak. Azken hori eremu horretako bide-partzelari gehituta, 817,52 m²-koa da.

Jendaurrean jartzeko aldia amaitu eta erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu ez denez, aprobetxamenduaren %10 uzteagatik ordaindu beharreko 8.602,00 euroak ordainduta eta hasierako onespenean ezarritako baldintzak bete direnez, behin betiko onetsi behar da.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

1.- Aurizberriko UE 15. 1. eta 2. egikaritze-unitateetan sustatutako birzatatze proiektua behin betiko onartzea.

2º.- 2.- Espedientea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentura igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

8.- MIKEL ZABALZA GAZTE NAFARRAREN HERIOTZA IKERTU ETA ARGITZEKO MOZIOA ONARTZEA

Garralda alkateak jakinarazi du Orbaizetako Udalak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak mozioa aurkeztu dutela Mikel Zabalzaren kasua iker dadin.

Horren aurrean aho batez erabaki da ondoren transkribatzen den mozioa onartzea eta harekin bat egitea eta hartutako erabakia bi erakundeei jakinaraztea:

Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duen adierazpena

Mikel Zabalza (1952-1985) beste pertsona batzuekin batera atxilotu zuten duela 35 urte ETAko kide gisa, eta Donostiako Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartelera eramane zuten. Mikel Zabalza bizirik sartu zen kuartelera eta, 20 egun geroago, hilda agertu zen Bidasoa ibaian.

Baina zer gertatu zitzaion Mikel Zabalzari? Gaur egun indarrean dagoen bertsio ofizialaren arabera, inguru horretan ETArekin zulo bat egiaztatzen ari zirela, Zabalzak guardia zibilengandik ihes egin zuen, ibaira erori zen eta itota hil zen. Atxilotuek torturak salatu zituzten, eta gizartearen zati handi batek ez zuen inoiz sinetsi Guardia Zibilaren bertsioa.

Pùblico hedabideak 2021eko otsailaren 22an argitaratu zituen grabazio batzuek agerian uzten dute Mikel Zabalzaren heriotza Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturengatik izan zela. Grabaketa Luis Alberto Perote Mikel Zabalza atxilotu zuten garaian CESIDeko (Defentsaren Informazioarako Goi Zentroko) koronelaren eta Galindoren aginduetara zegoen Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarrizketa da. Grabazio horretan esaten denez, Intxaurrondon jasandako torturen ondorioz hil zen Zabalza; zehazki, buruan poltsa aplikatzeagatik. Grabazio berean Gomez Nieto entzun daiteke "eskuetatik joan zaie, galdeketa geratu zaie" esanez.

Nahiz eta zantzu guztien arabera Zabalza Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturen ondorioz hil zen, 35 urte geroago, familiak oraindik ez du errekonozimendu ofizialik eta ez dute inor zigortu. Zabalza familiak ez du egirik, ez eta, beraz, justiziarik eta erreparaziorik ere. Auzitegiek behin baino gehiagotan erabaki dute auzia artxibatzea, froga faltagatik, gertatutakoa argitu gabe eta erantzukizunik zehaztu gabe. Heriotza horren zigorgabetasunak ezin du aurrera jarraitu.

Gure ustez, grabazio horiek funtsezkoak izan daitezke kasuan, eta kontuan hartu beharrekoak dira.

Horregatik, honako hau erabaki da:

1.- *Tortura legez kontrako indarkeria eta giza eskubideen urraketa gisa errefusatzeari.*

2.- *Espainiako Gobernuari espediente honekin zerikusia duen guztia desklasifikatzeko eskatzea.*

3.- *Guardia Zibileko kapitain Gómez Nietok eta garai harlan CESIDeko Juan Alberto Peroteren koronel buruak parte hartzen zuten audioak agertu ondoren, audioen edukia sakon ikertzeko eskatzea, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzaren inguruko egia jakiteko.*

9.- ESPAINIAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BERRESKURAPENEAN TOKI ENTITATEEK DUTEN PARTAIDETZARI BURUZ EUPF-ak EGINDAKO ERAKUNDE ADIERAZPENARI ATXEKITZEA

Garralda alkate jaunak hartu du hitza, eta EUPFak proposatutako adierazpen instituzionalaren berri eman du. Adierazpen hori toki-erakundeek Espainiako berreraikuntza ekonomiko eta sozialean duten parte-hartzeari buruzkoa da, eta korporazioak onartzea proposatzen dituen lau puntu hauek irakurri ditu:

1. *Toki-erakundeek Autonomia Erkidegoek Europatik – REACT-EU funtsak eta Espainiako Gobernutik ETEentzako eta autonomoentzako zuzeneko laguntzetan – jasoko dituzten funtsen ehuneko 15 jaso beharko dute, 15.000 milioi euro, osasun-gastuak deskontatu ondoren.*

2. *Funts horiek biztanleen arabera banatuko zaizkie udalei, eta ad hoc formula erabiliko dute diputazioek, kabildoek eta uharteetako kontseiluek.*

3. *Udalerrien, probintzien eta uharten lurralde-federazioen parte-hartzea eskatzea, kasuan kasuko autonomia-erkidegoetara jo dezaten eskakizun hori betetzeko.*

4. *Toki Entitate guztiei, Erkidego Autonomoei eta Espainiako Gobernuari erabaki honen berri ematea.*

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta EHBildu gai horien inguruan mintzatu dela adierazi du. Lehenengo puntuari dagokionez, EH Bilduren proposamena da banaketa % 30ekoa izatea, eta ez % 15ekoa, eta, biztanleriaren arabera funtsen banaketari buruzko bigarren puntuari dagokionez, ez zaie egokiena iruditzen, erkidego honetako biztanleen errealitatea kontuan hartuta, uste baitute hori herri handientzat pentsatuta dagoela eta Nafarroarentzat beste banaketa mota bat bilatu beharko litzatekeela, gure ezaugarriak kontuan hartu gabe, oso gutxi tokatuko litzatekeelako. Arrazoi horiengatik ez dute adierazpen hori ez onartuko. Zinegotziak gaineratu du garrantzitsua dela Nafarroako

Udal eta Kontzejuen Federazioak egindako adierazpena; izan ere, aspalditik eskatu zaio Nafarroako Gobernuari gardentasuna, informazioa, hori guztia izapidetzeko bulego bat eta abar. Garralda alkate jaunak, Nuño zinegotziak azaldutakoarekin ados badago ere, uste du diru pixka bat gehiago bideratzen bada, hobe dela. Remiro zinegotziak aurkako botoa emango duela dio.

Aldeko lau botoz (Gil, Eciolaza, Bidaurreta eta Garralda) eta aurkako hiru botoz (Nuño, Ekisoain eta Remiro) EUPFk proposatu duen adierazpena onartzea eta hartutako erabakia igortzea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

10.- BESTERIK

Alkateak honako informazioa eman du:

Pirinioko Planaren ekintzak

Pirinioetako Planari aurkeztu zaizkio, ekintzen partidan, baso-kudeaketaren azterlana eta parke mikologikorako proiektua, Orreagako Udalaren bitartez, erakunde bakoitzeko bakarra aurkez baitaiteke. Inbertsioetan, telebistarako zuntz optikoaren proiektua aurkeztu da, eta zuntza Sorogainera eramatea, Luzaide, Orreaga eta Aurizko Udalekin lankidetzan egindako Done Jakue Bidearen proiektua, Erroibarko Udalak bere aldetik Lintzoain eta Bizkarreta-Gerendiaingo tartek sartuz, Esnozko Kontzejuak bidea sartu du eta Bizkarreta-Gerendiainek aldagelak eta mediku kontsultategiaren proiektua.

Remiro zinegotziak galdetu du gainerako kontzejuak ez duten proiekturik aurkeztu eta alkateak erantzun du Erroko kontzejuak gela bat egiteko proiektua aurkeztu duela eta Orondritzek gauza bera egin duela.

Nuño zinegotziak eskatu du Done Jakue Bideko proiektua eta zuntz optikoaren proiektua izan nahi dituela, horien memoriak. Erabaki da dokumentazio guztia udalkide guztiei ematea.

Gil zinegotziak jakinarazi du Lintzoaingo kontzejuak Mezkirizko kontzejuarekin batera etxe konektatuak izeneko proiektua aurkeztu dutela eta Edurne Almirantearenak prestatuko duela.

Udalbatza jakitun da.

Kultura diru-laguntzak eskatzea

Jakinarazi da kultur jarduerak egiteko diru-laguntza eskatu dela.

Udalbatza jakitun da.

Balorazio Txostenari buruzko informazio bileraren data

Alkateak dio Balorazio Txostenari buruzko bilera informagarria egiteko data erabaki behar dela eta proposatu du abuztuaren 4an, 13:00etan egitea, egun horretan teknikaria etor daitekeelako.

Udalbatza jakitun da.

Kintoko Mankomunitatea. Informazioa.

Alkateak jakinarazi du Kintoko Mankomunitateko zerbitzu anitzetako langileak erretiroa hartu duela eta egoera kaotikoa dela ez delako inor kontratatu eta oposizioa prestatzen ari direla baina aldez aurretik plantilla aldatu behar dela euskarako C1 edo Ega mailako hizkuntza eskakizuna jartzeko. Hortaz gain proba batzuk egingo dira eta Kontratazio Mahaia honakoek osatuko dute: Baztango Udalaren ordezkaria, Erroibarko alkatea, Nafarroako Gobernuako teknikaria, Kintoko Mankomunitaterako lanean ari den Ekilan enpresako teknikaria eta Baztango idazkaria. Ekainaren 29an bilera egingo da lanpostua bete bitartean norbait kontratatuko den erabakitzeko.

Udalbatza jakitun da.

Urrobi Partzuergoa. Bilera.

Jakinarazi da Partzuergoko buruak Udal honetako alkatea eta idazkaria bilera batera deituko dituela, hasiera batean, ustez, aurkeztutako kontuen kitapenari buruz hitz egiteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bizkarretako mediku-kontsultategia eta aldagelak. Obrak.

Jakinarazi da Udala Bizkarretako Kontzejuarekin eta Ana Almirantearena arkitektoarekin bildu behar dela proiektua finantzatu eta abian jartzeari buruz hitz egiteko, kontsultategiko obrak aldageletako obrekin koordinatu behar direlako, bai eta obrak egiteko epeak ere. Horregatik, bilera lehenbailehen egin behar da, obra izapidetzeko eta gauzatzeko denborarik ez dagoelako. Obraren kostua garrantzitsua da, eta ikusi egin behar da nola finantzatuko den, eta obra egingo bada, egin egin behar da. Kontzejuak jakin behar du, gainera, zer laguntza izango dituen obra osoa egitea erabakitzen bada, berak hartuko baitu bere gain obra, eta, beraz, ea Udalaren laguntza ekonomikoa izango duen. Adjudikazioari dagokionez, prozedura laburtua erabiltzea proposatuko da, epeak motzagoak baitira eta gonbidatuko diren enpresak eskualdekoak, ezagunak eta serioak direlako. Hasiera batean bilera ostiralean, 25ean, 16:00etan egingen da.

Udalbatza jakitun da.

Hiru urteko Plana Orondrizko obrak eta etorkizuneko hiru urteko Plana

Jakinarazi da 2017/2019 Tokiko Azpiegitura Planean Orondrizko Kontzejuak bere garaiak eskatutako zolatze obrak sartu direla, Tokiko Administrazio Departamentuak onetsitako zerrenda berria ikusita. San Juan karrikako zati baten memoria prestatua dago eta Eunate Ingeniarien proiektua ere prest dago. Gastua txikia denez, 40.000 euro baino gutxiago, zenbateko gutxiko prozedura berezia erabiliko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Erroko eskolako lanak, diru-laguntza eta adjudikazio-prozedura

Erroko eskola publikoa berritzeko lanei dagokienez, beharrezkoa da bilera egitea irakasleekin, lanak egiteko epearekin arazoak daudelako. Nafarroako Gobernuak

emandako diru-laguntzen ebazpena iritsi da. Hezkuntza Departamentuak hala eskatuta, eta puntuazio gehiago eta, beraz, laguntza gehiago lortu ahal izateko, ez zen obra osoagatiko eskaera bat aurkeztu, baizik eta gauzatu nahi zen jarduketa mota bakoitzeko eskabide bat, guztira hamar eskabide eta dagozkien espedienteak. Guztiak onartu dituzte baina batentzako bakarrik eman dute diru-laguntza, traba arkitektonikoak kentzeko obrarentzako hain zuzen ere, 10.000 €. Gainerakoak itxaron zerrendan gelditu dira, horietako hiru nahiko goian eta, hortaz, diru-laguntzei uko egiten dieten entitateak egonez gero, obra horientzako ere diru-laguntzak lor ditzazkegu. Nolanahi ere, hori ez dakigunez eta horiek guztiak egitea beharreakoa denez, erabaki egin behar da zer egingo den eta zer ez, hala nola sabai faltsuak eta isolamenduak jartzea, obra hori diru-laguntzarekin edo diru-laguntzarik gabe egin behar baita.

34.000 euroko aurrekontu-partida dago, baina ez obra osorako; beraz, zer jarduketa egin ikusi behar da, aurrekontua aldatzen ez bada behintzat. Idazkariak dio lan horiek Covid diru-laguntzen kargura egin ahal diren galdetu behar duela.

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta esan du Agenda 21etik laguntza batzuk ere atera direla eta horien bidez finantzaketa bila daitekeela. Idazkariak erantzun du duela bi edo hiru urte Udalak laguntza horiek eskuratu zituela Medikuaeren Etxea deiturikoa eraberritzeko, alokairu sozialera bideratzeko, baina obra horiek ez dutela horrelako justifikaziorik, eta, beraz, ez dela posible izango.

Nolanahi ere, alkateak uste du bilera egin behar dela eta korporazioak in situ ikus dezala eskolaren egoera. Remiro zinegotziak erantzun du bere ustez garrantzitsuena ez dela bilera izatea, argi baitago irakasleek zer esan eta eskatuko duten, garrantzitsuena da jakitea eta erabakitzea Udalak obra guztien edo horien zati baten ardura hartuko duen, eta, hala bada, zein alderdiren ardura hartuko duen.

Sabaiak jaisteko eta isolatzeko obrak beharrezkoak direla denok ados egonik, Eskola Kontseiluari jakinaraziko zaio obra horiek Udalak hartzen dituela bere gain. Prozedurari dagokionez, egin beharreko obren arabera, prozedura sinplifikatua erabil daiteke, gutxienez bost enpresa gonbidatuz, eta aukeratzeko orduan prezioa izango da jarraitu beharreko irizpidea.

Udalbatza, ados egonik, jakinaren gainean gelditu da.

Etorkizuneko Hirurteko Plana

Jakinarazi da udalerriko toki entitate guztietara galdetegia iritsi dela azpiegituren beharrei buruzkoa, datorren hirurteko planean kontuan hartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Tanatorioa

Izarra tanatorioari dagokionez, Esteribarko Udalarekin harremanetan daude eta Zubirin jartzeko aukera lantzen ari dira. Gaineratu du enpresaren gaineko inpresio oso ona izan zuela eta berriki haiekin izandako harremanean oso tratu ona jaso zuela.

Derrigorrezkoa ez den irakaskuntza-garraioa

Jakinarazi da Ruth Ordoñezek eta Ana Cristina Lopez de Uraldek errekurtsioa aurkeztu dutela derrigorrezkoa ez den garraiorako laguntza ukatzeko ebazpenaren aurka. Horren arabera, erabakitakoaren ildo beretik erantzungo zaie, epez kanpo aurkeztu baitzen, eta garraio-zerbitzua antolatzeko bileran interesa zuen familia bakarra egertu baitzen eta, egun horretan bertan beste inork ez zegoela ikusita, laguntza emango zitzaiola agindu baitzaitzaion.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Remiro zinegotziak honako informazioa eman du:

Agenda 21

Remiro zinegotziak azaldu du Agenda 21 delakoari buruz Nuño zinegotziak esandakoaren harira, eremu honetako Agenda 21i Santiago-Irati bidea esaten zaio, eta Esteribar, Erroibar, Auritz, Orreaga, Luzaide eta Aezkoako toki entitateek osatzen dute. Egindako bilera batean Esteribarko Udalak jakinarazi zuen Agenda horretatik irten nahi zutela eta bere Agenda propioa izan nahi zuela, gero eta gutxiago baitira puntu komunak. Hori dela eta, Santiago-Irati Bideko Agendaren gaia sendotasunik gabe geratzen ari da. Nafarroako Gobernuak teknikari Mikel Ortigonsa jaunak proposatu zuen buelta bat ematea, baina, egia esan, interes gutxi sortzen du, izan ere, bilera horretara ia inor ez zen joan. Horregatik, 2021-2022 ikasturteko Agenda 21 egiteko deialdi berri bat berriro deitu zela ikusi zuenean, ez zekien gai horretan denbora eta ahalegina inbertitzeko interesik dagoen ala ez; izan ere, agendak berak berekin dakar 2030 agendarekin, jasangarritasun-helburuekin eta abarrekin lerrokatuta joan behar duen lan bat, zeinak, adierazten duen bezala, lan handia eskatzen baitu, Agendari helburu batzuk, eduki bat eta ibilbide-orri bat eman behar baitzaizkio. Orain arte, Cedernako Edurne de Miguelek kudeatzen zuen Agenda, eta laguntzen deialdi bat zegoen bakoitzean banatzen saiatzen zen, urtero agenda osatzen duten toki-erakundeek sustatutako bizpahiru proiektu txandaka aurkez zitezten, guztiak, lehenago edo geroago, onuradun izan zitezten.

Nolanahi ere, Remiro zinegotziak galdetu du ea Esteribar alde batera utzita agenda berri bat sortzeko interesik dagoen ala ez. Izan ere, gai horretan interesik ez duen eta Cedernako teknikariaren laguntza behar duen jendea ez badago, oso zaila izango litzateke hori gauzatzea. Gaia ez da zer laguntza ekonomiko lor daitezkeen, Agenda bera baizik. Garralda alkate jaunaren iritziz, ona litzateke horren guztiaren diagnostikoa egitea, Cederna, Pirinioak, Partzuergoak, Agenda 21, Animsa baitaude. Azkenean, zerbitzu horiekin guztiarekin galtzen zara, eta erakunde komun bat egin beharko litzateke, gai horiekin guztiarekin bat etorriko litzatekeen agentzia bat. Remiro zinegotziak erantzun du horretarako ez dagoela Agenda, Agenda beste tresna bat dela, baina ez dizula lan hori kenduko eta ez duela lan hori egingo. Alkatea baietz erantzun diot, hori badakiela, baina baliagarria izan daitekeela gauden egoeraren diagnostiko orokor bat egiteko.

Bestalde, Nuño zinegotziak eta idazkariak adierazi bezala, diagnostiko horretan ari da lanean Pirinioetako Mahaia.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta EH Bilduk eta Haize Moreak herritarren ordenantzari buruz eskatutako txostena noiz egingo den jakin nahi du. Idazkariak erantzun du horretarako denbora izan bezain laster, Idazkaritzatik inoiz eraman ez den gaia delako, eta argitu eta aztertu arte, denbora faltaren eta gaiari buruzko ezjakintasunaren artean, txostena egitea kosta egiten delako.

Jarraian, mozio baten bidez pediatriako ordutegiak aldatzeko egin zen eskaeraren izapidetzea nola dagoen galdetu du, eta idazkariak erantzun du gaur Aurizko Osasun Etxera bidali dutela eskaerarekin bat egin duten erakundeen zerrendarekin batera.

Desfibriladoreen prestakuntzari dagokionez, berriz ere errepikatu beharko litzateke, iraungita dagoelako. Azaldu duenez, Nafarroako Gobernuaren ekimen bati buruzko informazioa eman zioten, Osasunbidearen mendeko larrialdi-talde bat sortzeko. Talde hori prestakuntza-gai horretan inplikaturik zen, baldintza batzuekin, baina badirudi gaia zehaztu gabe dagoela. Arazoa da aipatutako Larrialdietako taldeak antolatzen ez baditu, horiek eman ditzakeen norbait bilatu beharko litzatekeela, bai Oscar Saraguetaren bidez, aurrekoan bezala, edo beste norbaitekin. Alerten whatsapp talde bat sortu zen, baina ez da ezer egin, eta ikusi beharko litzateke ea jende berria sartu nahi den, ea berriro prestatu behar den, etab.

Ondoren, Remiro zinegotziak galdetu du ea jaso den INAltik jaso zuten mezu elektronikoko bati buruzko galdetegiak, Udalak bete beharreko toki-erakundeetan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko azterketa estrategikoari buruzkoa. Idazkariak erantzun du baietz, eta, nahi izanez gero, berriz bidaliko duela, bete dezaten. Remiro zinegotziak erantzun du, bere ustez, alkatea dela erantzun behar duena, eta horrela egingo da.

Ondoren galdetu du ea norbait ari den parte hartzen jakiak ehuntzen programan, eta ezetz erantzun zaio.

Urnizako gaiari buruz galdetu du, legebiltzarkideen bisitaz gain zerbait gehiago gertatu den eta alkateak ezetz erantzun du.

Sacyr enpresari eta proiektu eolikoari dagokienez, berririk ba ote dagoen galdetu du, eta alkateak erantzun du, Gil zinegotziak adierazitakoa izan ezik, ez dela beste ezer egon eta ez dela dokumentazio gehiago iritsi. Nuño zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bera ere kezkatuta dagoela gai horrekin, eta adi egoteko eskatu du, zerbait iristen denean eperik ez pasatzeko eta abar.

Udalaren covid neurriek dagokienez, galdetu du ea udaletxeko atea itxita mantenduko den ala ez, eta noiz arte. Hasiera batean bai, baina, nolahi ere, Udaleko langileekin hitz egingo da haien iritzia jasotzeko.

Ondoren, Euskara Zerbitzuari buruz galdetu du ea 2021eko ekitaldi honetan onartu behar zen hiru urteko planaren berririk dagoen. Idazkariak erantzun du euskara teknikaria prestatzen ari dela eta epe laburrean aurkeztuko duela

2020ko kontuen txostenari dagokionez uztailan aztertuko direla dio. Piztu proiektuari dagokionez, galdetu du ea kontzejuei buruz ezer dakigun, ea haiekin batzarrik izan den, eta alkateak erantzun du bere informazioa dela Gordejuela teknikaria kontzejuekin biltzen ari zela, proiektua azaldu eta informazioa emateko, eta sortzen diren zalantzak argitzeko. Nuño zinegotziak galdetu du nork ordaintzen dituen bilera horiek, eta alkateak erantzun du Cedernak ematen duen zerbitzuaren barruan daudela. Hala ere, zinegotziak uste du memoria egin zela, baina ez dela beste ezer aurreratu. Remiro zinegotziak esan du kontzejuetako bileretan zalantzak sortzen direla eta gauzak galdetzen direla, baina ez dakiela Udalak horiek ezagutzen dituen, eta uste du, Udala proiektuaren sustatzailea izanik, jakin beharko lukeela zer ondorio ateratzen ari diren Ardaizko lurzatiaren baterakuntzari dagokionez, gaia 2020ko azaroaren 29tik dago zintzilik. Alkateak erantzun du Zerbitzutik esan zituzten izapideak egin zirela, baina ez dutela deitu eta ez dakiela gehiago, gaiari helduko dio ea zer gertatzen den.

COVID laguntza eta zein proiektu justifikatu, Osasunbidearekin izandako bileraren ondoren batzorde bat deituko zela erabaki zen, baina batzorde hori ez da deitu. Garralda alkateak erantzun du Osasunbidearekin bilera egin zela, baina nahiago duela batzordea mantendu bertan esandakoa eta adostutakoa azaltzeko

Azkenik, Udaletik bidaltzen diren e-mailei dagokionez, galdetu du zergatik batzuk guztiei bidaltzen zaizkien eta beste batzuk ez, uste baitu benetan udalbatzako kide guztiei interesatzen ahal zaiela gaia. Idazkariak erantzun du bere erabakia dela, jorratzen diren gaien eta horietan nork parte hartzen duen kontuan hartuta, baina iristen zaizkion mezu guztiak guztiei bidaltzea nahi bada, ez dagoela arazorik. Nuño andreak erantzun du ulertzen duela, udalkide guztiei bidaltzen ez bazaizkie, bai talde bakoitzari bidali behar zaizkiela.

Done Jakue Bideko Udalerriaren Elkarteak bidalitako e-mail bati eta Espainiako irratiko telebistarekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, penagarria iruditzen zaio inork kontu hartzea eta horretaz arduratzea, uste baitu aukera bat dela Bidea eta, beraz, udalerrira zabaltzen duten programak egotea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.